

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN
ETA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA – UEMAren ARTEKO
OINARRIZKO LANKIDETZA HITZARMENA

HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik, Iñaki Goirizelaia Ordorika, Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean UPV/EHU) errektorea, abenduaren 31ko 437/2012 Dekretuaren bidez egindako izendapena dela eta (2013ko urtarrilaren 9ko EHAA, 9. zk.), erakunde horren ordezkari legala den aldetik, unibertsitateko Estatutuetan (otsailaren 15eko 17/2011 Dekretua, otsailaren 24ko EHAA, 38. zk.) kargu horrentzat zehaztutako eskumenak direla bide.

Bestetik, Josu Labaka Zuriarrain, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) lehendakaria, Mankomunitatearen izenean eta legezko ordezkari gisa.

HAU AZALDU DUTE:

1. Hitzarmen hau sinatu duten erakundeek, beren izaera eta helburuak kontuan hartuta, funtsezko eginkizuna beteko dute garapen sozial eta ekonomikoan, baita kultura zabaldu eta hedatzeko zereginetan ere, gizartea goratze aldera.
2. Bi erakundeen arteko lankidetzaren eta elkarlanerako mekanismoak artikulatzeak berebiziko garrantzia du gizartearen aurrerabide eta zerbitzurako.
3. Bi erakundeek beren harreman kultural, zientifiko eta akademikoak sendotzeko interesa dute, UEMA bera zein UEMAko udalerrien eta unibertsitate komunitatearen arteko topaketa sustatuz.

4. Udalerri euskaldunek euskararen geroan jokatzeko duten papera aintzat hartuta, unibertsitateak eta UEMAk elkarlanean ekarpen ezin hobeta egin dezakete euskararen berreskurapenean.

Bi erakundeetako ordezkariak hitzarmen hau sinatzeko behar adinako gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta bi erakundeen arteko oinarritzko lankidetzak hitzarmen bat egitea erabaki dute, honako klausula hauekin:

I. HELBURUAK

Hitzarmen hau Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen artean lankidetzak harreman egonkorra garatzeko egin da, bi erakundeen interes erkideak asetzeko aldera. Lankidetzak hori jardura desberdinetan gauzatu ahal izango da, ondorengo klausuletan adierazitakoaren arabera.

II. LANKIDETZAK MOTAK

Bi erakundeen arteko lankidetzak honako hauek barnera ditzake:

1. Ikaskuntza guneak bultzatzea, baita udalerrietako herritarren parte-hartzea sustatzeko aldera, hitzaldiak eta dibulgazio zientifikoa bultzatu ere.
2. UEMako udalerrien zerbitzura dagoen pertsonalari zuzenduriko formakuntza ikastaroak antolatzea.
3. Bi aldeek adostutako gaiak buruzko jardunaldiak antolatzea eta eskaintzea.

4. UEMari eta UEMA osatzen duten udalerriei laguntza tekniko juridikoa eskaintzeko akordioak finkatzea.
5. Euskararen erabilera sustatzeko jarduerak bultzatzea.
6. Akordioak finkatzea ikasleak UEMAn zein UEMako udaletan praktika hezigarriak egin ditzaten.
7. Bi erakundeek lankidetzan jardutea udalerrri euskaldunentzat eta unibertsitate komunitatearentzat interesgarriak diren azterlanak egiterakoan, bi erakundeek eskura dituzten baliabideak erabiliz.

III. PROGRAMA/PROIEKTU ESPEZIFIKOAK

Oinarrizko hitzarmen marko honen baitan garatzen diren programa edo proiektu espezifikoak UPV/EHUren eta UEMAREN arteko hitzarmen edo akordioen bidez finkatuko dira, eta hala dagokionean, OTRIren bitartez bideratuko dira (Ikerkuntzako Emaizak Transferitzeko Bulegoa). Hitzarmen edo akordio espezifiko horiek honako informazio hau jaso behar dute:

- Programa/proiektuaren jatorria, izaera eta deskribapena.
- Erakunde bakoitzeko parte-hartzaileen eta arduradunen izenak.
- Programa/proiektuaren iraupena.
- Proiektuari loturiko gastuak ordaintzeko aurreikusitako finantza baliabideak eta kasuan kasuko diru banaketa.
- Alderdi bakoitzak proiektua gauzatzeko hartutako konpromisoak.
- Programa martxan jartzearen eta bilakaeraren koordinazioa eta segimendua.
- Hitzarmenaren indarraldia.
- Indarraldia amaitzeaz bestelako arrazoiengatik hitzarmena iraungitzea.

Hitzarmen edo akordio espezifikoak bi erakundeetako ordezkariak onartu behar dituzte.

IV. LANKIDETZA ARLOAK

Lankidetzak UEMArentzat eta UPV/EHUrentzat interes komunekoak diren arloetan baita garatu da. Honako arlo hauek bilduko lirateke, besteak beste: hezkuntza, euskararen sustapena eta erabilera, prestakuntza, administrazio-zuzenbidea, toki erregimenak barne hartzen dituen arloak, ingurumen zuzenbidea eta bi aldeentzako intereskoak izan litezkeen ikerketa esparruak.

Aipaturiko arloetan, alderdi sinatzaileen eskumenen barruan sartzen diren programa, proiektu eta jarduerak planifikatu eta egingo dira, eta berariaz zehaztuko dira dagokion hitzarmen edo akordio espezifikoan.

V. FINANTZA BALDINTZAK

Aipatu erakundearen artean ez da inolako konpromiso finantzariozko izango etorkizuneko programak/proiektuak gauzatzeko. Lankidetzak jarduerak, bestelakorik zehaztu ezean, erabilgarri dagoen aurrekontuari lotuta egongo dira. Programa edo proiektu bakoitzak aurrekontu aurreikuspena zehaztuko du dagokion hitzarmen edo akordio espezifikoan.

VI. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA BALIATZEROKI MODUA

Akordio honen baitan eginiko baterako jardueren ondoriozko informazio guztia baliatu ahal izango dute bi alderdiek, beste araurik ezartzen ez bada behintzat.

Gara daitezkeen patenteak asmatzaile bakoitzaren eta haren erakundearen arteko patentei buruzko arau eta legeei lotuta egongo dira. Patenteen erabilerari buruz hartzen diren erabakiek asmatzailekide guztien onarpena izan behar dute.

VII. HIRUGARRENEN PARTE-HARTZEA

Akordio honen xede den lankidetza UPV/EHUren edo UEMAren eta hirugarrenen arteko kontratu edo beken bidez finantzatzen den kasuetan, kontratu edo beka horiek dagokien erakundeek bakarrik erabili ahal izango dituzte. Nolanahi ere, hirugarrenekin akordioak egin ahal izango dira, bi erakunde sinatzaileak barne hartuz.

VIII. LANKIDETZAREN ZABALKUNDEA

Bi erakundeek oinarrizko hitzarmen marko honen baitan eta hitzarmen honen babesean sinatzen diren akordio espezifikoek baitan eginiko lankidetza nabarmentzeko konpromisoa hartzen dute. Horretarako, lankidetza hitzarmen honen ondoriozko jakintza zabaltzeko eta ustiatzeko argitalpen eta ekintza guztietan berariaz adierazi beharko da UPV/EHUren parte-hartzea, eta unibertsitatearen irudia agerian egotea bermatu beharko da, antzeko adierazgarritasun edo tamainarekin, bidezkoak diren besteen kaltetan izan gabe.

IX. ISILPEKO INFORMAZIOA

Hitzarmen honen edo bere gauzapeanaren ondoriozko informazio konfidentzial guztia babestu egin beharko da legearekin bat etorruta.

X. KOORDINAZIOA

Alderdien arteko lankidetza eta akordio espezifikoak garatzea, haien segimendua egitea eta betetzea errazteko, Jarraipen Batzorde bat eratu da, UPV/EHUko bi ordezkari eta UEMAko beste bik osatua. Jarraipen Batzorde honi, besteak beste, honako eginkizun hauek dagozkie:

- Interes komunekoa gaitan lankidetzan jarduteko aukerak sustatzea, akordio espezifikoa formalizatuta, oinarritzko hitzarmen honetan aurreikusitako lankidetzaren moten barruan.
- Akordio espezifikoa, zein kontratuak UPV/EHUko organo eskudunei eta UEMAko arduradunei helaraztea, onartu eta sinatu ditzaitez.
- Akordio espezifikoa eta oinarritzko hitzarmen hau interpretatu eta betetzekoan sor daitezkeen zalantzak argitzea eta erabakitzea.
- Sinatzen diren eta gauzatzen diren akordio espezifikoen segimendua eta azken ebaluazioa egitea.

XI. INDARREAN JARTZEA ETA IRAUPENA

Hitzarmen hau azken sinatzaileak sinatzen duen egunean jarriko da indarrean, eta bost urteko indarraldia izango du. Bi aldeek ados daudela idatziz agertuz gero, beste lau urterako berriro ahal izango da, alderdien interesaren eta nahiaren arabera.

Bi erakunde sinatzaileetatik edozeinek hitzarmen hau desegin dezake. Horretarako:

- I. Beste erakundeari idatziz jakinaraziko dio, gutxienez 6 hilabeteko aurrerapenarekin, hitzarmena aldatu edo amaitu egin nahi duela, horretarako data zehaztuz.
- II. Erantzuna emateko 30 eguneko epea egongo da. Epe hori igarotakoan, bi alderdiak ados daudela ulertuko da, eta proposamena onartuko da.
- III. Hitzarmena desegiteak ez du zigorrik izango.
- IV. Hitzarmena deseginez gero, alderdietako inork ez du bestearen aurrean erantzukizunik izango sor daitezkeen galera ekonomiko edo bestelakoei dagokienez.
- V. Hitzarmen hau desegiteak bere babesean sinatutako akordio espezifikoa desegitea ekarriko du; hala ere, ez du eraginik izango desegiteko unean martxan zeuden jardueretan, amaitzen diren arte.

Bi alderdien erakundeen ordezkariak dokumentu hau adostu eta sinatu dute, hiru aletan, klausula guztiak onartuz.

Universidad del País Vasco/Euskal
Herriko Unibertsitatea



Fernando Plazaola Muguruza
UPV/EHUko errektorea

Udalerri Euskaldunen
Mankomunitatea



Josu Labaka Zuriarrain,
Lehendakaria

**Errektorea ez egoteagatik, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko UPV/EHUko errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Erabakiarekin bat etorrira, (2013ko otsailaren 13ko EHAA).*